

## HAUSPOA

Aurten HAUSPOA proiektua bere osotasunean gauzatzeko aukera izango dugu, 2020-21 ikasturtean ez bezala. HAUSPOA-k arratsaldetan hiru jarduera bloke nagusi izango ditu: ikasgaietako indartze tailerrak, aisialdiko tailerrak eta liburutegiaren erabilpena. Horretaz gain, ikastetxeko hainbat bilera, batzordeetako jarduera, hitzaldi edota orientazio akademiko eta profesionala bideratzeko eta antolatzeke aukera emango digu.

Indartze tailerrak: Ikasgairen bat suspendituta duenarentzat (ebaluazioa edo pendientea) edo beharra duenarentzat. Izena eman ahal izango dute:

- Ikasgaia pendiente duten ikasleek edo ikasgaiko irakaslearen aholkua jaso dutenek. Tutoreak jakinaraziko die ikasleei HAUSPOAn izena ematearen beharraz.

-

Familiek eskatuta izena eman nahi duten ikasleek.

Indartzeak astero izango dira ondorengo ikasgai eremutan: euskara, matematika, ingelesa, natura, gaztelania eta gizarte.

Aisialdiko tailerrak: Zaletasunak lantzeko. Edonork eman dezake izena, gehienezko kopurua bete arte. Tailer hauek 2 multzotan banatuko ditugu:

- Irakasleek proposatu eta antolatuko dituztenak (astelehen, astearte eta ostegunetan eskainiko dira).
- Gurasoek edo kaleko hezitzaileek antolatuko dituztenak. Kanpoko begiraleak kontratatuko

dira, ikasle ohiak ahal dela. Asteazkenetan eskainiko dira.

Web orrian argitaratu da aisialdiko tailer guztien eskaintza.

Mediateka: Ikasteko eta lanerako gunea. Ikasleentzako zabalik, antolatua eta zaindua izango da. Profesional baten aholkularitza eta laguntza jasoko dute.

[URRIKO AGENDA](#)

[AZAROKO AGENDA](#)

[ABENDUKO AGENDA](#)

[URTARRILEKO AGENDA](#)

[OTSAILEKO AGENDA](#)

[MARTXOKO AGENDA](#)

[APIRILEKO AGENDA](#)

[MAIATZEKO AGENDA](#)